



GIZON BEARRA TA ABERATS ZIKOTZA.¹



ERAKASDE ONA.²



Munduban beste asko bezela zan beñ gizon bear bat.

Gayeza³ lanerako, ez zuben beste oskayik⁴ jan bear bazuben, ani-
ma onaren doankia⁵ edo limosna besterik.

Gosetua oso ta beartasun aundiyan, ikusi zuben goiz batian pasa-
tzen bere ondotik gizon bar, diruz josiya⁶ zegona, mundu guztiyak
esaten zubenez aboa betian.

Arrimatu zan beregana umill-umill, eta esanaz zeñen biarra zegon,
eskatu ziyon Jainkoagatik egin zegiola limosnacho baten mesedia.

Bañan gizon aberats purrukatu ura,⁷ aberatsa baño zikotzagoa zan,
eta aberats ta zikotza baño ere oraindik biotz-gogorragua.

Ikusi zuben beñ agudo pobria, eranzun zion guziro modu cha-

(1) *Zikotz-a*, tacaño. avariento.—(2) *Erakasde ona*. Ejemplo moral.—(3) *Gay-eza*, no útil ó inútil.—(4) *Oskay-a*, remedio, recurso.—(5) *Doanki-a*, li-
mosna.—(6) *Diruz josiya*, literalmente, «cosido de (ó en) dinero.» Dicese de los
hombres cargados de dinero, ó muy ricos.—(7) *Aberats purrukatuba*, muy
rico. ó rico en demasía.

Notable, sobre todo por la moral que encierra, es esta fábula de nuestro
involudable amigo el fundador de la EUSKAL-ERRIA. (N. de la R.)

rrean, esanaz obe zukiala lan egin lotsagabekeriyan ifñori ala eskatzen ibilli baño.

—Ez naiz gai lanerako, jauna, esan zion len baño umillago oraindik gizon bearrak, zer janik ez det, atzotikan mokadurik progatu gabe nago, eta orla biar badet izan, denbora guchi barru gosiak ilko nau.

—Ill adi nai badek, ez dik mundubak gauza aundirik galduko ire faltan,—eranzun zion ark modu charrean.

—Biotz gogorra du, jauna, pobriarentzat, eta naiz berorrek ez uste, pobriak ere Jainkoaren semiak gera.

—Ua¹ ortik agudo, eta ez nakala pazienziya progatu zergatik beste moduz ire bizkarrian ausiko diat eskuban daramatan makilla.

—Gaizki egiten du, jauna, ifñor meachatzea,² zenbat eta geiago ni bezelako pobre bat, ifñoren gordozeririk³ gabia.

Lana franko du pobriak bere beartasunian, ifñoren mesprezarik⁴ gabe ere....

Itz abek abotik ateratzetik etzuben akabatu oraindik, orra nun gizon aberats biyotz gogor arrek alchatu zuben jotzeko eskuban zeraman makilla, eta pobria, jakiñik ez zubela arren kontra gauza onik aterako, itzik geiago egin gabe asi zan korrika argandik eskapoz.

Aberats zikotzak orduban, oso erria ta bere onetatik ateria pobriaren arrazoyagaz, artu zuben bidetik arri bat eta, errabiyen eta indar aundiyaekin, iraitzi ziyon⁵ pobriari.

Jaunak nonbait nai izan zuben arriya erortzia pobriaren oñetara, oni ezer gaitzik egin gabe.

Pobriak orduban alcha zuben lurretik arriya, triste baña keja bat gabetanik, sartu zuben kolkuan, eta bere bidean joan zan, zikotz gaizto arri ezer egin eta ezer esan gabe, bañan ziñegiñaz⁶ ez zubela aztuko charkeri itsusi ura.

II.

Denbora puska bat pasa zan ordutikan.

Gizon bearra bearrian zan oraindik, eta estu ta pobre bizi zan doankiyaren mesedez.

—(1) *Ua*, véte —(2) *Mechatu*, amenazar.—(3) *Gordozeri-a*, defensa, amparo.—(4) *Mespreza*, desprecio.—(5) *Iraitzi*, arrojar, echar.—(6) *Ziñegin*, jurar.

Aberats zikotza berriz, diru geiago ta geiago biltzeko bere afanian, edozein moduz zala, charkeri aundi batian achituba¹ izan zan, eta karzelara eramana, nun pasa baizituben illabete batzubenk errabiyaz eta lotsaz akabatzen, kondenatuba izan zan azkenerako justiziyagandik plazaren erdiyan ogei ta amar makillazo artzera borruaren eskuz.²

Egun siñalatu ura allegatu zanian, goiz goizetik zeuden jendez be-tiak erriko karrika edo kale gure gizon aberats zikotzak pasa biar zituben guziyak plazaraño juateko.

Nola ain gaizki tratatu izan baizituben denak bere andiustean, denak ziyoten bere doakabeen errukiyaren³ lekuan errabiya.

Noizbait bada allegatu zan bere orduba, eta gizon zikotz ura, Jainkoagaz eta bere suertiaz ernegatzen, atera zuten kalera, erropaz ariñ, eta lotsa aundiagorako asto itsusi baten gañian, eramana alde batetik borruera erabakiyari⁴ kunplimentu eman biar ziona, eta bes-tetik pregoilaria,⁵ kale iškiña guztietan irakurtzen⁶ zubela deadarka⁷ arren charkeria eta justiziyak emandako erabakia.

Jende pilla guzti arren tartean zegon gizon bear, noizbait aberats zikotzak dakigun bezin charki artu zubena.

Ikusi zuben bezela onek allegatzen ondora, mutill chikiren oju⁸ eta burlazko deadarren, eta aundiyan irriyaren artean, gizon biyotz gogor ura, ateriaz beti berekiñ gordetzen zuben arriya, alchatu zuben eskui-eskuba,⁹ intenziyo charrez beterik bota ziyon aberats zikotz-arri biurtutzeko.¹⁰

Bañan istanti artan, Jaunak nonbait ikutu zion damutasunez bi-yotza, eta lotsaturikan intenziyo char artaz, utzi zuben erortzen lur santura eskuko arriya, eta bere abotik ez zan atera ez eraso¹¹ bat, ez irain bat.¹²

Gizon bearrak barkatu zion zikotz ari egin zion gaitza Jainkuak agintzen digun bezela, eta kontatzen¹³ dute esan zubela onela be-retzat:

«Argandik mendekatzia,¹⁴ zanian aberatsa ta fuertia, izango zan ero-

(1) *Achitu*, coger. *Achituba izan zan*, fué cogido.—(2) *Borrerua*, el verdu-go. *Borrerunren eskuz*, de manos del verdugo.—(3) *Erruki-a*, compasion.—(4) *Erabakia*, decision. sentencia.—(5) *Pregoilari-a*, el pregonero.—(6) *Ira-kurri*, irakurtzen, leer.—(7) *Deardaka*, á gritos, en voz alta.—(8) *Oju*, grito. (9) *Eskui-eskuba*, la mano derecha.—(10) *Biurtu*, volver, restituir.—(11) *Eraso-a*, insulto.—(12) *Irain-a*, injuria.—(13) *Kontadu*, contar, referir.—(14) *Mendekatu*, vengarse.

keri aundiya nere aldetik; mendekatzia gaur, denen burla danean, diru eta onra gabe dagonian, eta len lausengatzen¹ zutenak berak chistu egiten diyotenian arpegira, umilduba ikusirik, egiteko itsusi ta lotsagarria litzake.

Jainkuak barka dizayola nik barkatzen diyotan bezela bere charke-riya.»

Aur ta gizon etsaigot² ta mendekakorrak, euki zazue beti go-goan erakasde³ eder au, eta besteratu edo imita zazute gizon bearraren ejemploa zuben etsayakin. Ala agintzen digu gure Jaungoikoaren lege santubak.

JOSÉ MANTEROLA.

MAÑÉ Y FLAQUER.

Hacemos nuestras las siguientes líneas de nuestro apreciable colega *El Noticiero bilbaino*:

«Un estimado amigo nuestro, que ha regresado de un viaje á Barcelona, nos ha traído una tristísima noticia. Queriendo nuestro amigo aprovechar la ocasion para saludar personalmente al insigne publicista y entusiasta y generoso defensor de las libertades bascongadas don Juan Mañé y Flaquer, se dirigió á casa de éste y supo con dolor que el ilustre director del decano de los periódicos españoles se halla prostrado en cama á consecuencia de una parálisis sobrevenida despues de la gravísima enfermedad que el año anterior puso al Sr. Mañé y Flaquer al borde del sepulcro, y dió ocasion á que hasta en las más altas esferas del Estado se manifestase el alto aprecio que goza en todas las de la inteligencia el eximio periodista catalán, en quien corren parejas el talento y la honradez.

(1) *Lausengatu*, adular.—(2) *Etsaigot-a*, rencoroso.—(3) *Erakasde-a*, enseñanza.